



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

## EUP! SALMENTA ATARIAK BIZKAIKO TOKIKO 279 SALTOKI BARRI SARTZEA AURREIKUSTEN DAU

- **Ainara Basurko Ekonomia Sustapeneko diputatuak lurraldeko txikizkako merkataritzari laguntzeko bagilaren 6an sortu zan atariaren lau hilebeteko balantzea egin dau.**
- **Bizkaiko 350 establezimendutako 8.000 produktu baino gehiago dagoz “punta-puntako” erakusleihu digital horretan.**

*(Bilbon, 2021eko urriaren 18an).* Aldundiak eta BBKk aurtengo ekainaren 6an tokiko merkataritzari laguntzeko aktibau daben online salmentarako Eup! plataformak, lurraldeko 350 establezimenduk euren produktuak erakustea lortu dau, eta beste 279 “atxikipen fasean” dagoz daborduko, Ainara Basurko Ekonomia Sustatzeko diputatuak Elkarrekin Bizkaiak eskatuta Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako agerraldian jakitera emon dauenez.

Aldundiak eta BBK Fundazioak garatutako “punta-puntako” plataforma “lehiakorra” eta “iraunkorra” zehazteko, sektoreko hainbat eragileren laguntza izan dabe, horreen artean, Cecobi, Bizkaidenda, Bilbodenda eta Bilboko Merkataritza Ganbera. Une honetan, ordenagailutik edo telefono mobikor batetik eros daitezkezan “8.000 produktu baino gehiago” dagoz digitalizauta. Lankidetzeta hori beste atari batzuetara be zabaltzen ari da, Basurkok iragarri dauenez: Euskadiko tokiko merkataritzarentzako DENDAg, “market place” bat, edo beste plataforma lokalago batzuk, Barakaldo Store beste batzuen artean.

Bizkaiko Eup! ataria “aurrerapausu garrantzitsua da Bizkaiko tokiko saltoki txikientzat digitalizazioan orain arte gauzatutakoagaz alderatuta, hurbiltasunak emoten dauen berme eta konfiantzatik lehiakorragoa izateko”. Diputatuaren berbetan, atariak “epe ertain eta luzera bere hazkundera eta iraunkortasuna bermatu gura ditu”, kudeaketa “profesionalagaz”, eta “ingurune digitalak eta marketin kanal barriek emoten daben potentzial guztia aprobetxetea ahalbidetuko dau”. “Kontsumo ohitura barrien aurrean sektorea indartzeko tresnea da, edozein plataforma handiren parean, baina lurraldeagaz, personakaz eta Bizkaiko ongizateagaz konpromisoa hartuta”, azaldu dau.

Plataformea BBKgaz lortutako hiru urteko akordioari esker jarri da martxan, eta Foru Gobernuaren “800.000 euroko” zuzeneko diru-laguntza “garrantzitsua” jasoten dau, Talde Berezia-PPk gogorarazo dauenez. Akordio horren arabera, Aldundiak “3.375



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

euro” gastau ditu publizidadeko hesietan eta “52.500 euro” hedabideakaz egindako hitzarmenetan, Basurkok zehaztu dauenez.

Batzar Nagusietako oposizinoko taldeak bat etorri dira esaterakoan emaitzak “txikiak” dirala, 12.000 txikizkako saltoki batzen dituan Bizkaiko merkataritza-sektore batean lortutako atxikipen-mailea ikusita, eta baita idea hori lantzen hasi ziranetik igarotako denporea ikusita be. Idatziz egindako erantzun-eske bati urriaren 5ean emondako erantzunean, PPK jakinarazo dau egun horretara arte lortutako fakturazino orokorra “5.736 eurokoa” izan zala. Oposizinoak merkatariek Bilbo Metropolitarran kontzentretako joera izatea be kritikau dau, “% 47” Bizkaiko uriburuan, Amaya Fernández popularraren berbetan. Zenbakiak ikusita, EH Bilduk ekimena “barriro planteetako” eskatu dau, “ez dalako txikizkako merkataritza erakarteko gai izaten ari”.

Foru Gobernua babesten daben taldeek egin daben moduan, diputatuak erantzun dau “ataria “saltokiek eurek eskatzen euskuela euren negozioak digitalizetako, kontsumitzaileen usadio eta ohituren bilakaerea ikusita”, eta Bizkaiko merkatariek “posizino ahulean” egozala Bizkaiko gizartearen digitalizazino-mailen aurrean, pandemiagaz prozesu hori azkartu egin dan arren. Basurkok pazientzia eskatu dau, atariak “denporea” behar dauelako hazteko eta sendotzeko, iritsi barria dalako, kontuan hartuta urte asko daroien plataformakaz lehiatzen dala.

## FRANTZIAKO TOURRA 2023

Bizkaiko Batzarretako Ekonomi Sustapenerako Batzordeak 2023an Frantziako Tourraren urteeraren ganean be egin dau berba, Elkarrekin Bizkaiaren ahozko erantzun-eske bat dala-eta. Horri jagokonez, Basurkok azaldu dau uneotan antolatzaileak hartutako “konpromisoak formalizetako izapideak zehazten eta egiten” ari dirala, eta, 2022an zehar egingo diran hainbat ekimenen bidez “Tourrak gure lurraldean dituan eragin positiboak hedatzeko beharrezkoak diran ekintzak kudeatzen” ari dirala. Ekimen horreen helburua Bizkaiko gizarte osoa inpliketea da, eta, batez be, belauldi gazteenak, bai urteeran, bai proiektuaren garapenean.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## EL PORTAL DE COMPRAS EUP! CONTEMPLA LA INCORPORACIÓN DE 279 NUEVOS COMERCIOS LOCALES DE BIZKAIA

- La diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, ofrece en Juntas Generales un balance de cuatro meses del “market place” nacido el 6 de junio para apoyar al comercio minorista del territorio.
- Más de 8.000 productos de 350 establecimientos de Bizkaia se muestran ya en este “puntero” escaparate digital.

(Bilbao, a 18 de octubre de 2021). La plataforma de venta online Eup!, activada el 6 de junio de este año por la Diputación y BBK para apoyar al comercio local, ha conseguido que 350 establecimientos del territorio muestren ya sus productos, mientras que otros “279 están en fase de adhesión”, según ha desvelado hoy la diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia solicitada por Elkarrekin Bizkaia.

La “puntera”, “competitiva” y “sostenible” plataforma desarrollada por la Diputación y la Fundación BBK, ha contado para su concreción con la colaboración de diversos agentes del sector como Cecobi, Bizkaidendak, Bilbodenda y la Cámara de Comercio de Bilbao, y cuenta en estos momentos con “más de 8.000 productos” digitalizados que pueden ya adquirirse desde el ordenador o un teléfono móvil. Esta colaboración se está extendiendo también a otros portales existentes ya, según ha anunciado Basurko, como DENDAgO, un “market place” para el comercio local de Euskadi, u otras plataformas más locales como Barakaldo Store.

El portal vizcaíno Eup! supone “un importante paso sobre lo desarrollado hasta la fecha para el pequeño comercio local de Bizkaia en su digitalización, para ser más competitivo desde la garantía y la confianza que ofrece la proximidad”. Según la diputada, el portal “busca garantizar su crecimiento y sostenibilidad a medio y largo plazo”, con una gestión “profesional” que va a “permitir aprovechar todo el potencial que ofrece el entorno digital y los nuevos canales de marketing”. Es una herramienta “para reforzar el sector ante los nuevos hábitos de consumo, a la altura de cualquier gran plataforma existente, pero desde un compromiso con el territorio, con las personas y con el bienestar de Bizkaia”, ha explicado.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La puesta en marcha de esta plataforma ha sido posible gracias a un acuerdo de tres años alcanzado con BBK, que incluye una “relevante” subvención directa de “800.000 euros” del Gobierno foral, según ha recordado el grupo Mixto-PP. En virtud de este acuerdo, la Diputación ha gastado en campañas de difusión “3.375 euros” en vallas publicitarias y “52.500 euros” en acuerdos con medios de comunicación, ha precisado Basurko.

Los grupos junteros de la oposición han coincidido en señalar que los resultados son “bajos” a tenor del nivel de adhesión conseguida en un sector comercial vizcaíno que congrega a 12.000 comercios minoristas, así como del tiempo transcurrido desde que se comenzó a trabajar en la idea. En una pregunta por escrito respondida el 5 de octubre, el grupo Mixto-PP ha informado de que la facturación global conseguida hasta ese día fue de “5.736 euros”. La oposición ha afeado también que los comercios tiendan a concentrarse en el Bilbao Metropolitano, el “47%” en la capital vizcaína, según la popular Amaya Fernández. A raíz de los datos, EH Bildu ha pedido “replantearse” esta iniciativa, ya que “no está siendo capaz de atraer al comercio minorista.”

Al igual que los grupos que apoyan al Gobierno foral, la diputada ha sostenido que el portal era algo que “nos pedían los propios comercios para digitalizar sus negocios viendo la evolución de los usos y costumbres de los consumidores”, y que los comerciantes de Bizkaia “partían de una posición débil” respecto a los niveles de digitalización de la sociedad vizcaína, en un proceso que se ha visto acelerado con la pandemia. Basurko ha pedido paciencia ya que el portal “necesita tiempo” para crecer y consolidarse, ya que es una recién llegada, teniendo en cuenta que se compite con plataformas que llevan muchos años implantadas.

## TOUR DE FRANCIA 2023

La comisión de Promoción Económica de la Cámara vizcaína ha tratado también el asunto de la salida del Tour de Francia en 2023, gracias a una pregunta oral de Elkarrekin Bizkaia. A este respecto, Basurko ha explicado que, en estos momentos, “se está trabajando en la concreción y realización de trámites para formalizar los compromisos” adquiridos con la organización y “gestionar las acciones necesarias para extender los impactos positivos del Tour en nuestro territorio, a través de diferentes iniciativas a lo largo de 2022, que persiguen implicar a toda la sociedad vizcaína y muy especialmente a las generaciones más jóvenes tanto en la salida como en el desarrollo de la carrera.”